

Intelektuala

Hitz bakar batean ezaugarritu beharko banu Joxe Azurmendiren bizi- eta lan-ibilbidearen noranzkoa, intelektuala izan dela esango nuke. Intelektual moduan jokatzeko, kultur baliabideen jabe behar da izan. Haatik, kulturgile orok ez du intelektualaren lana gauzatzen. Izan ere, intelektualak kultur baliabideen zilegitasuna baliatzen du talde sozial edo kolektibo jakin baten beharrei eta interesei adierazpen landu eta legitimoa emateko. Dena delako kolektiboa kokapen menderatzailean egon daiteke, eta, hartara, bere dominazioa elikatzeke erabil dezake adituen ezagutza –gogoan izan ditzagun gaur egungo oligarkien *think tank* boteretsuak—. Baina, izan daiteke talde sozial, ekimen kultural edo herri menderatua ere. Nolanahi den, kulturgileak, funtzio kulturala ez ezik, funtzio politikoa ere betetzen du rol horretan aritzean. Azurmendik, jakina, herri ekimenaren aldeko hautua egin zuen.

Erreferente hartu zuen herri eta hizkuntza txiki baten aldeko ahots kulturala izateko asmo horrek ez du alboratu, pentsalari moduan, Azurmendik izan duen ibilbide akademiko-intelektual bikaina. Are gehiago, zubigile izan da euskal herrigintzaren eta mundu akademikoaren artean, bi kokapenak uztartu baititu aldi berean. Ildo horretan, unibertsitatean ezohiko bidea egin duen filosofo erraldoia izan da. Euskal filosofoak mundu akademiko-zientifikoan urratutako ibilbidea gaur egun nagusi den korronte nagusiaren kontra joan dela esan genezake. Kontuan harturik azken hamarkadetan unibertsitatea arau neoliberalaren aginduetara doitzen ari dela, gainerako giza eta gizarte zientziei bezala, filosofiari gero eta bazterrekoagoa den kokapena egokitu zaio diziplinen gaurko hierarkia akademikoetan. Bestalde, ezagutzen oinarrituriko merkatu-ekonomia nagusitu den garaiotan, irakasle-ikertzaileen ibilbide akademiko-zientifikoak printzipio estrategikoen arabera diseinatu dira, gero eta gehiago.

Halatan, sektore pribatuan berezkoak izan diren kudeaketa gerentzialistaren eta nazioartekotzearen presioaren menpe, unibertsitateek mantendu behar dituzten lehia produktibisten logikaren barruan, nazioarteko aldizkarietan ingelesez argitaratutako *paper* laburren idazketa ugaritu da akademikoen artean. Horren ondorioz, ez gutxitan, pentsamendu arina eta argitalpen azkarra bultzatu da kalitatearen kaltetan. Eta, apurka-apurka, hizkuntz patroiz, ikertzaile-jarraibide eta ezagutza legitimo eredu hegemonikoak nagusitzen joan dira. Bilakiera horren aurrean, Azurmendik, akademikoaren betebeharrei muzin egin gabe –EHUko katedraduna izan da luzaroan–, argi izan ditu bere hautuak. Lehenik, euskal komunitateari atxikirik, euskaraz idatzitako pentsamenduaren sorkuntza lehenetsi du. Bigarrenik, liburu formatuan emandako testu sakonak eta irakurketa pausatua eskatzen dutenak sortu ditu gehienbat. Azkenik, landutako gaien bitartez, mundu akademikotik euskal gizarterako bidea egiten jakin du behin eta berriro, unibertsitateak izan behar duen funtzio soziala aintzat harturik.

Gure artetik joan denean, haren lan mardula geratu zaigu. Jakina, Azurmendi garai eta belaunaldi zehatz bateko semea izan da. Haren ikuspegia eta ezagutza-produkzioa kokapen sozial batean eta testuinguru sozial eta politiko jakinean ainguraturik daude. Baina, garai horretako kezkek, ezinegonek eta krisiek, zipriztindu ez ezik, bete-betean zeharkatu ere egiten dute gaur egungo euskal gizartea, azken finean, aurreko historiaren ondorena garelako. Nire ustez, lekukotasun historikoaren balio hutsa gainditu duten testu klasikoen aurrean gaude. Testu klasiko batek, izan ere, sortutako unetik aurrera ere hausnarketarako eta azterketarako erabilgarriak diren baliabide teorikoak, kontzeptualak eta gogoetak eskaintzen ditu. Halakoxeak dira Azurmendiren lanak. Tresna horiez baliatzeak ez du esan nahi egileak idatzitakoa betirako bere horretan hartu behar denik, aurrerantzean harekin etengabeko elkarrizketa intelektualean jarduteko aukera eskaintzen duela baizik.